Arautegi honen xedea da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate Klaustroaren antolamendua eta jarduera arautzea, Unibertsitatei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik eta 110/2003 Foru Dekretuak, maiatzaren 12koak, onetsitako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuak 23. artikuluko c) letran aurreikusitakoa betez. Estatutuak Gobernu Kontseiluak 2011ko martxoaren 21ean hartutako erabaki baten bidez aldatu ziren.

LEHEN TITULUA KLAUSTROAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

1. artikulua. Izaera eta osaera

1. Unibertsitateko Klaustroa Unibertsitateko komunitatea ordezkatzen duen erakunde kolegiatu goren da.
2. Honako hauek osatzen dute Klaustroa: Errektorea, klaustroburua dena, Idazkari Nagusia eta Kudeatzailea, berezko kide direnak, eta horiez gain 120 kide unibertsitate komunitateko arloetako ordezkariek direnak, Estatutuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hauteskunde Arautegian ezarritakoarekin bat etorritik banatuak eta hautatuak.
3. Klaustrokide ez diren errektoreordeak ere bileretara joan daitezke, hitzarekin eta botorik gabe.
4. Klaustroa lau urtez behin berrituko da, ikasleen ordezkariek kasuan izan ezik, horiek bi urtez behin berrituko baitira.

2. artikulua. Eginkizunak

Hauek dira Klaustroaren eginkizunak:

- a) Estatutuak egin eta eraberritzea.
- b) Errektorea hautatzeko ohiz kanpoko deialdia egitea, lege indardunetan xedatutakoari jarraikiz.
- c) Barne-eraentzako arautegia egitea, hauei buruzko gorabeherak bederen arautuko dituen: bileren erregimena, deialdia, eguneko aztergaiak eta zuzenketak eta mozioak aurkezteko eta erabakiak hartzeko prozedurak eta betebeharrak, bai eta haiek aldatzekoak ere.
- d) Unibertsitateko Komunitatearen arartekoa hautatu eta kargugabetzea, Estatutu hauen 116. artikuluan xedatuari jarraikiz, eta haren funtzionamendurako arautegia onetsi eta aldatzea.
- e) Gobernu Kontseiluan bere ordezkariek izango direnak hautatzea.
- f) Egoki jotzen dituen batzordeak sortzea eta haien kideak hautatzea.
- g) Lege indardunek berriaz esleitzen dioten beste edozein eginkizun.

BIGARREN TITULUA KLAUSTROKIDEEN ESTATUTUA

3. artikulua. Klaustrokide izaera egiaztatzea

1. Unibertsitateko Klaustrokide izaera norberarena eta ordezkazina da eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hauteskunde Batzordeak luzaturiko agiriaren bidez kreditatuko da.

2. Klaustroburuak edo Mahaiko beste edozein kidek klaustrokideei beren identifikazio-agiria eskatu ahalko die.

Unibertsitateko Klaustroa bertaratzeko gonbidatuak diren pertsonen eta gizarte komunikabideetako ordezkarien kasuan, Klaustroburuak edo Mahaiko beste edozein kidek eskatu ahalko die Unibertsitateko idazkari nagusiak sinaturiko baimena.

3. Inork usurpatuko balu Klaustrokidearen izaera, Unibertsitateko errektoreak zehatuko luke, indarrean dauden legeek ezartzen dutenaren arabera.

4. artikulua. Klaustrokideen eskubideak eta betebeharrak

1. Klaustrokideek Unibertsitateko Klaustroko Osoko Bilkuretara joateko, hitza eta botoa dutela, eskubidea eta betebeharra dute, baita klaustroaren beste organoetara ere, horretarako aukeratuak izan direnean, Arautegi honek ezartzen duenaren arabera.

Osoko Bilkurak erabaki ahalko du klaustrokideek bileretan daudela egiaztatzen duen akta bat bete dezatela. Era berean, klaustrokideren bat Osoko Bilkuretara nahiz hautatua izan den Klaustroaren beste edozein erakunderen bileretara agertzen ez bada, behin eta berriro, eta justifikatu gabe, bere eskubide eta betebeharrak etetea erabaki ahalko du Osoko Bilkurak, finkatzen duen bilera kopuru baterako.

2. Unibertsitateko Klaustroaren Osoko Bilkuretan nahiz Klaustroaren beste edozein erakunderen bileretan klaustrokideek Arautegi honetan finkatutakoaren arabera jokabidea agertu beharko dute eta, bereziki, ordena, kortesia eta diziplina errespetatu. Betebehar hau betetzen ez bada, Mahaikak ohartarazpen publikoa eginez zehatu ahalko du.

3. Klaustrokideek beren eginkizunak betetzeko behar duten informazioa eta agiriak eskatu ahalko dizkiote Klaustroko idazkaritzari.

4. Klaustrokideek beren jardunean eskura ditzaketen informazioen gainean behar den zuhertasuna izan beharko dute.

5. Klaustrokideek Osoko Bilkuretara edo kide diren Unibertsitateko Klaustroko batzordeen edo organoen bileretara joateko, unibertsitatearen beste jarduerarik ez betetzeko baimena izango dute bilerak irauten duten denboran.

6. Saisetako zuzendariak, irakasle klaustrokideen kasuan, eta Unitate bakoitzaren arduradunak, administrazio eta zerbitzuetako langile klaustrokideen kasuan, interesatuak hala jakinarazi ondoren, klaustrokideek egin beharko dituzten irakaskuntza-eginkizunak edo administraziozkoak betetzeko neurriak hartuko dituzte, behar diren ordezkapenak finkatuz.

7. Ikasle klaustrokideek Osoko Bilkuretara edo kide diren Unibertsitateko Klaustroko batzordeen edo organoen bileretara joateagatik egin ezin izan duten edozein proba egin ahal izateko, Klaustroko Idazkaritzaren ziurtagiria eskuratu ahalko dute. Saisetako zuzendariak bermatuko dute atzeratzen edo aurreratzen den azterketa, klaustrokide ez diren ikasleek beren egunean egindakoa bezalakoa izango dela, egituraren eta ezaugarrien aldetik, interesatuen kontrako akordiorik ez badago.

8. Unibertsitateko Klaustroaren Mahaikak ebatziko ditu, ofizioz edo interesdunak hala eskaturik, artikulua hau aplikatzeak sortaraz litzakeen gatazkak. Hartzen dituen erabakiak, gatazka ezagutu edo planteatzen denetik hurrengo astegunaren barruan jakinaraziko dira jendaurrean, eta behartze-indarra izango dute haiek bete behar dituzten erakundeetarako.

5. artikulua. Klaustrokide izaera galtzea

1. Klaustrokide izaera Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuetako 52.1 artikuluan organo kolegiatuei dagokienez aurreikusitako arrazoiengatik galtzen da.

2. Ikasketak bukatuz gero, hurrengo ikasturteko lehen eskola-egunetik aurrera ikasleek klaustrokidetasuna galduko dute.
3. Arloetako ordezkarien artean betetzeko postu hutsik badago, ordezkapenak egiteko edo berriz hautatzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek eta Hauteskunde Arautegiek ezartzen dutenari jarraituko zaio.

HIRUGARREN TITULUA UNIBERTSITATEKO KLAUSTROAREN ANTOLAKETA

6. artikulua. Klaustroaren organoak

1. Unibertsitateko Klaustroko organoak honako hauek dira: Klaustroko Osoko Bilkura eta Klaustroko Mahaia.
2. Osoko Bilkuraren eta Klaustroko Mahaiaren burua errektorea da eta idazkaria, Unibertsitateko idazkari nagusia.

7. artikulua.- Klaustroburuaren eginkizunak

Hauek dira klaustroburuaren eginkizunak:

- a) Klaustroko ordezkariak betetzea.
- b) Klaustroko eta Mahairako deia egitea Arautegi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.
- c) Klaustroaren eta Mahaiaren eraketa aldarrikatzea.
- d) Aztergaiak ezarri eta haien ordena zaintzea eta bilerak inpartzialtasunez zuzentzea Klaustroari zor zaion errespetuaren barnean.
- e) Arautegi hau betetzea eta betearaztea.
- f) Mahaiaren jarduna koordinatzea eta Arautegi honek aurreikusten dituen gainerako eginkizunak burutzea.

8. artikulua.- Idazkariaren eginkizunak

Hauek dira Klaustroko idazkariaren eginkizunak:

- a) Klaustroko eta Mahairako deialdia egitea buruaren aginduz.
- b) Osoko bilkuretako aktak idaztea eta baimentzea, buruak ontzat emanik, Arautegi honetako 35.2 artikuluan ezarritako prozedurari jarraizkiz, bai eta luzatu behar diren ziurtagiriak luzatzea ere.
- c) Mahaiko bileren aktak idaztea eta baimentzea, buruak ontzat emanik, Mahaiak onetsi beharko dituenak, bai eta luzatu behar diren ziurtagiriak luzatzea ere.
- d) Mahaiburuari laguntzea bileretan, eztabaiden eta bozketen ordena ziurtatzeko.
- e) Klaustroko lanak normaltasunez gara daitezzen laguntzea, Arautegi honetan ezarritakoari jarraizkiz.
- f) Unibertsitateko Klaustroaren erabakien publizitatea bermatzea.
- g) Klaustroburuak zein Arautegi honek ematen dioten beste edozein eginkizun.

I KAPITULUA KLAUSTROKO MAHAIA. OSAERA ETA EGINKIZUNAK

9. artikulua. Izaera

Mahaia da Unibertsitateko Klaustroa zuzentzen duen organo kolegiatua. Klaustroburuaren zuzendaritzapean aritzen da eta Klaustroaren ordezkaria da beharrezkoa den ekitaldietan.

10. artikulua. Osaera

Mahaia osatzen dute mahaiburuak, idazkariak eta zazpi mahaikide, ondoko banaketari jarraikiz:

- Hiru klaustrokide, Unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasle doktoreen ordezkariak.
- Klaustrokide bat, aurreko kategorian sartzen ez diren irakasleen ordezkaria.
- Ikasleen ordezkariak diren bi klaustrokide.
- Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria den klaustrokide bat.

11. artikulua. Mahaiaren hautaketa

1. Mahaiko kideen eta, kopuru berean, beren ordezkoen hautaketa Klaustroa eratzeko bileran egingo da eta arlo bakoitzeko klaustrokideek beraiek hautatuko dituzte beren artetik.

2. Hautagaiak aurkeztuko dira Klaustroburuari jakinarazita, eta hark *in voce* aldarrikatuko ditu. Jarraian, bozketa eta zenbaketa egingo dira, arloka. Klaustroko idazkariak boto zenbaketa egingo du.

3. Bozketa isilpekoa, askea, zuzena, norberarena eta ordezkazina izango da. Klaustrokide bakoitzak hautagai bakar bati eman ahalko dio botoa. Beren arloan boto gehien erdietsi dituzten hautagaiak hautatuko dira, eta zerrenda batean azalduko dira erdietsitako boto kopuruaren hurrenkeran antolatuak, mahaikide edo ordezko diren ezartzeko xedez. Arlo batean berdinketa gertatuz gero, boto gehien erdietsi dutenen artean beste bozketa bat egingo litzateke. Berdinketak jarraitzen bada, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hauteskunde Arautegiko 23.3 artikulua arauen arabera ebaztuko da hori ezar daitekeen kasuetan, eta gainerakoetan zozketa bidez.

4. Hautagairik ez dagoenean edo aurkezturiko hautagai kopurua bete beharreko postu kopuruaren berdina edo txikiagoa bada, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hauteskunde Arautegiko 13. artikuluan aurreikusitako arauak ezarriko dira. Betiere, mahaikide edo ordezkoa den ezarrita egon beharko da.

5. Mahaiburuak hautagai hautetsien aldarrikapena egingo du eta haiek beren lekuak hartu dituztenean, Mahaia eratutzat aldarrikatuko du.

12. artikulua. Ordezkapenak

1. Mahaia eratu ondoren, zazpi mahaikideen artetik buruorde eta idazkariorde bat hautatuko dituzte, errektorea eta idazkari nagusia hurrenez-hurren ordezka ditzaten, beren eginkizunak burutu ditzaten haiek ez daudenean, kanpoan daudenean edo joan ezin direnean.

2. Mahaiko kide batek bertaraterik ez bada, mahaiburuak haren ordezkoari dei egingo dio.

3. Mahaiko hautetsien hutsuneak, arlo bakoitzaren bozketan hurrengo gelditu den hautagaiak beteko ditu, eta horrela ez bada, hauteskunde partzialen bidez egingo da.

13. artikulua. Mahaiko hautetsi izaera galtzea

Mahaiko hautetsiek izaera hori galduko dute Arautegi honen 5. artikulua onduz edo hautatu dituen arloaren gehiengo absolutuak adosturiko kargugabetzearen ondorioz, Mahaiko buruari idazkia eginez.

14. artikulua. Mahaiaren kideak

Mahaiaren kideek laguntza emango diote mahaiburuari eztabaidetako ordena eta botazioen zuzentasuna gordetzen, Mahaiak ezarritako eginkizunetan parte hartzen eta haren erabakiak betetzen direla zaintzen, Mahaiburuaren zuzendaritzapean.

15. artikulua. Mahaiaren eskumenak

1. Hauek dira Mahaiari dagozkion eginkizunak:

- a) Klaustroaren zereginak antolatzea.
- b) Unibertsitateko Klaustroaren jarduera, antolamendua eta gobernua behar bezala gara daitezen zaintzea.

- c) Klaustrokideen proiektuak, proposamenak, erreklamazioak eta errekursoak Klaustroaren erabakiaren menpe jartzea, ezarritako baldintzekin bat etorritik.
- d) Ofizios edo interesdunak eskaturik, klaustrokide gisako eginkizunak betetzeak klaustrokideari unibertsitate eremuan laneko edo irakaskuntzako eskubideen eta betebeharren arteko bateraezintasunak sortzen ahal dizkioten gatazka ebaztea.
- e) Zalantza agertuz gero, Arautegi honen xedapenak interpretatzea, aplikatu daitezkeen arauekin bat etorritik.
- f) Arautegi honen edo Klaustroak ematen dion beste edozein eginkizun, eta haren organo zehatz batenak ez direnak.

2. Klaustroko Mahaiari eskuordetu zaio Osoko Bilkuraren erabakien aurka ezarritako berraztertze errekursoak ezestea.

II. KAPITULUA UNIBERTSITATEKO KLAUSTROAREN OSOKO BILKURA

16. artikulua. Izaera eta osaera

- a) Klaustroaren Osoko Bilkura bere organo gorena da. Haren jardura askatasuna, demokrazia, ordena eta eraginkortasun printzipioei lotu beharko zaie.
- b) Osoko Bilkurari dagokio Klaustroari dagozkion gaiak eztabaidatzea eta haien gaineko erabakiak hartzea.

LAUGARREN TITULUA UNIBERTSITATEKO KLAUSTROAREN JARDUERA

I KAPITULUA MAHAIAREN JARDUERA

17. artikulua. Eratzeko quoruma

Klaustroko Mahaia behar bezala eratuta geratuko da lehen deialdian, baldin eta burua eta idazkaria bertan badaude, edo, hala badagokio, beren funtzioak betetzen dituztenak, eta gainontzeko kide guztien erdiak, gutxienez.

18. artikulua. Deialdia

Mahaia mahaiburuak bere ekimenez deia eginda bilduko da, edo mahaiburuari gutxienez kideetako lauk eskatzen diotenean.

19. artikulua. Erabakiak hartzea

Mahaia zioa emanez hartuko ditu bere erabakiak, bertaraturiko mahaikideen gehiengoarekin. Bozketan berdinketa gertatuz gero, bilerako buruak boto ebazlea erabiltzen ahalko du.

II. KAPITULUA

OSOKO BILKURAREN FUNTZIONAMENDUA

Lehenengo Atala: bilerak

20. artikulua. Saioen eraentza

Klaustroa bilduko da:

- a) Ohiko bileran, urtean behin gutxienez, irakaskuntza-aldiaren barruan. Klaustroaren ohiko bilerak ez dira egingo egutegi ofizialean azterketak egiteko hartutako egunetan, programatutakoak ez badira bertan behera uzten, behintzat, ohiko bilerak dirauten bitartean.
- b) Aparteko bileran errektoreak erabakitzen duenean bere ekimenez edo klaustrokideen gehiengoaren ehuneko 25ek hala eskatzen diotenean edo kideen gehiengo absolutuak harturiko erabakiaren ondorioz Gobernu Kontseiluak eskatzen duenean. Eskaera idatziz egingo zaio errektoreari, aparteko bilera justifikatzen duten eta ukitu behar diren aztergaiak zeintzuk diren adieraziz. Kasu honetan, errektoreak eskaera egiten den egunaren ondoko 10 egun baliodunen epearen barruan egingo du deialdia, eta bilera errektoreak eskaera jaso zuen egunaren ondoko 20 egun baliodunen epearen barruan egingo da.

2. Klaustroko bilerak publikoak izango dira, ondoko atalean zehazten diren baldintzetan, deialdian ez bada kontrakoa adierazten, Klaustroko Mahaikideen gehiengo absolutuak hala erabakita.

3. Unibertsitateko Klaustroko buruak, edozein klaustrokidek hala proposaturik, Klaustroaren bilera publikoetara joateko gonbidapenak luzatu ahalko ditu unibertsitate komunitateko edozein kiderentzat. Era berean, Klaustroburuak, bere ekimenez, gizarte komunikabideetakoak ez diren profesionalen bileretara etortzeko gonbidapena luzatzen ahalko die, eguneko aztergaiengatik bertaratzea interesgarria jotzen badu. Unibertsitateko Klaustroko Idazkariak sinatu beharko ditu gonbidapen horiek. Bilereko aktan gonbidatuak bezala, hau da, hitzarekin baina botorik gabe, egon direla jasoko da. Klaustrokideak izan gabe bertaratzen direnek, leku ezberdina eta klaustrokideengandik bereizita beteko dute.

4. Gizarte komunikabideetako profesionalak bileraren hasieran bertaratu ahalko dira, Unibertsitateko Klaustroko idazkariak luzaturiko kreditazioarekin. Hamar minutuko gehieneko epea igaro ondoren, kazetariak aretotik alde egin beharko dute. Bilera bukatu ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoak harturiko erabakien berri emango die komunikabideei.

Salbuespen gisa, gizarte komunikabideetako profesionalak Klaustroaren bilera publikoetan egon ahalko dira, Mahaiaren gehiengo absolutuak hala onesten badu.

21. artikulua. Eratzeko quoruma

Unibertsitateko Klaustroa behar bezala eratuta geratuko da lehen deialdian, baldin eta burua eta idazkaria bertan badaude, edo, hala badagokio, beren funtzioak betetzen dituztenak, eta gainontzeko kide guztien erdiak, gutxienez. Quorumik ez badago, bigarren deialdian bilera balioduna izango da baldin eta bertan badaude burua eta idazkaria edo, hala badagokio, beren funtzioak betetzen dituztenak, eta gainontzeko kideen heren bat. Lehen eta bigarren deialdien artean ordu erdi bateko tarte egongo da, gutxienez.

22. artikulua Bileren garapena

1. Unibertsitateko klaustroko buruak, Mahaiarekin bat etorriz, bilera behar bezala gara dadila ziurtatu beharko du, arrazoi justifikatua badago bertan behera utz dezakeelarik, esanez non, zer egunetan eta zer ordutan jarraituko den.

2. Eztabaidak eguneko aztergaien zerrendaren hurrenkeran egingo dira. Alabaina, eguneko aztergaien zerrenda aldatu ahalko da, Mahaiaren gehiengoaren erabakiaz, bilerako buruak hala proposaturik.

Bigarren Atala: Deialdia eta Eguneko aztergaiak.

23. artikulua. Deialdia eta jakinarazpena

1. Unibertsitateko Klaustroko ohiko bileretarako deialdia Klaustroburuak erabakiko du, Mahaia entzun ondoren.
2. Kideei deialdiaren berri jakinarazi behar zaie modu egokian bilera non eta noiz izango den esanez, baita eguneko aztergaien zerrenda emanez ere, bilera egin baino zazpi egun lehenago, gutxienez. Aparteko bilerak salbuetsita daude, arrazoi pisuzkorik bada premiaz deitzen ahalko baitira, bilera egin eta 48 ordu lehenago.
3. Klaustroko Idazkaritzak sorrarazten duen dokumentazioa Unibertsitateko Klaustrokideei igorriko zaie bide telematikoz eta Nafarroako berezko hizkuntzetan idatzirik, euskaraz eta gaztelaniaz, formatu elebidunez eta informazio-euskarri bakarrean.
4. Klaustroko bileretako eguneko aztergaiari buruzko dokumentazioa klaustrokideen eskura jarriko da bide telematikoz, espreski bestelakorik esan ezean.

24. artikulua. Eguneko aztergaiak

1. Klaustroburuak finkatuko ditu Osoko Bilkuraren Eguneko Aztergaiak, Mahaiarekin bat etorritz.
2. Eguneko Aztergaien barruan agertuko dira klaustrokideen % 10ek nahiz edozein arlotako klaustrokideen % 50ek aurkeztzen dituzten aztergai guztiak, beti ere aztergai horiek Unibertsitateko Klaustroaren eginkizunei badagozkie.
3. Ezin izango da eztabaidatu edo erabaki eguneko aztergaietan agertzen ez den gairik, Klaustroko kide guztiak bertan daudela, gehiengoaren aldeko botoen bidez gaiaren premia aitortzen ez bada.

Hirugarren Atala: Eztabaidak.

25. artikulua. Eztabaiden garapena

1. Klaustroburuak eztabaidatu beharreko gaiari buruzko azalpena emango du, jarraian, Mahaiaren proposamena ezarriko du, bidezkoa bada, iritziak edo proposamen alternatiboak eskatuko ditu eta debatareari hasiera emango dio.
2. Klaustroburuak, Mahaiarekin bat etorritz, eztabaidaren ordena ona eta bozketak zuzenduko ditu, baita hitz egiteko txanda eman eta kendu ere. Horretarako, aztergai bakoitzari buruz eztabaidatzeko gehienez zenbat denbora erabiliko den eta parte hartze kopurua, beren hurrenkera eta iraupena ezarri ahalko ditu.
3. Partehartzeak norbanakoak izango dira, klaustrokideak bere burua identifikatu ondoren, ahoz eta Nafarroako bertako hizkuntzetan, euskaraz zein gaztelaniaz, aldibereko itzulpen zerbitzua bermaturik izango dela. Parte hartzeko hurrenkera hitza eskatzeko txandarena izango da. Hainbat lagunek aldi berean eskatzen badute, Mahaiak ezarriko du zein den hurrenkera, egokien ikusten duen prozeduraren bidez.
4. Eztabaidarako gehieneko denbora ezarri bada, ezin izango zaio inori bere parte hartzea moztu denbora hori bukatu ez den artean, bera nahiz Klaustroa edo bertako kideren bat ohartarazteko ez bada. Klaustroburuak hizlariari jakinarazi ahalko dio denbora agortu duela eta, beharrezkoa bada, hitza kendu ahalko dio.

26. artikulua. Eztabaiden antolamendua

1. Eztabaidetan azalduko proposamenak, Klaustroburuak azaldukoak ez direnak, eztabaidatu egingo dira, aldeentzako baldintza berdineko txandak ezarritz.
2. Mahaiak berdintsutat jotzen dituen proposamenak bildu ahalko ditu eztabaidatzeko edo onesteko, betiere proposamena aurkeztu dutenek horren aurkako arrazoirik agertzen ez badute.

27. artikulua. Aipamenak eta erantzunak

1. Eztabaidetan klaustrokideren bati buruz nahiz bere jokabideari buruz hala nolako iritziak edo zehazkabetasunak egiten badira, klaustrokide horrek hitzegiteko eskubidea, berehalakoa, izango du, soil-soilik egindako aipamenei erantzuteko eta eztabaidatzen ari den gaian sakondu gabe.
2. Klaustrokidea ez badago aipamena egiten den unean, Mahaiak erantzuteko txanda eman ahalko du hurrengo bileran.

28. artikulua. Irakurtzeko eskaera

Edozein klaustrokidek eskatu ahalko du, eztabaida gertatzen den bitartean edo bozketa egin aurretik, bere ustez eztabaidagaiaren hariari argigarri zaizkion arauak edo agiriak irakurtzeko baimena. Buruak ukatu ahalko ditu, Mahaiarekin bat etorritik, ez egokitzen edo ez beharrekotzen jotzen dituen irakurketak.

29. artikulua. Erari buruzko arazoak

1. Klaustrokideek erari buruzko arazoak agertu ahalko dituzte edozein unetan, beren txandari itxaron beharrik gabe, salbuespena une horretan norbait mintzatzen aritea delarik. Klaustroburuak hitza ematen dionean erari buruzko arazoa agertu duenari, hark artikulua honen bigarren atalean zerrendaturiko prozedurazko edo gorabeherazkoa den azalduko du, eztabaidan sakondu gabe eta eztabaidatzen ari denari alternatibak aurkeztu gabe.

Klaustroburuak, Mahaiarekin bat etorritik eta gehiago eztabaidatu gabe, berehala ebatziko du. Eskaera ezetsi ondoren, eskatzaileak proposatzen badu, azalduko gaia berehala bozkatu da Klaustroko Osoko Bilkuran, bozketa arruntean.

2. Erari buruzko arazoak ondokoei dagozkienak dira:

- a) Bilera etetea edo amaitutzat ematea.
- b) Eztabaidatzen ari den gaiaren debatea hurrengo bilera baterako atzeratzea.
- c) Eztabaida buka dadin eskatzea, nahiko eztabaidatu dela uste baita.
- d) Klaustroburuak proposaturiko bozkatzeko prozedurari buruz argitasunak eskatzea edo alternatibak proposatzea.
- e) Arautegi hau, Unibertsitateko Estatutuak edo lerrun handiagoko beste arauen bat betetzea, Mahaiari aplikatzeko eskatzen zaion artikulua edo artikulua aipatu beharko duelarik.
- f) Arautegi honen 22.2 eta 25.4 artikulua Klaustroburuari ematen dizkion ahalmenak bete ahal izatea aurkatzea.

30. artikulua. Eztabaida bukatzea

1. Klaustroburuak, Mahaiarekin bat etorritik, eztabaida bukatzea erabaki ahalko du nahiko eztabaidatua dela irizten dionean, betiere, azken parte-hartzeetarako txanda eskainiko duela.

2. Behin eztabaida bukatuta, Klaustroburuak eskatuko dio Osoko Bilkurari eztabaidatutako gaiari buruzko erabaki bat hartzeko, Arautegi honen hurrengo atalean finkatzen diren prozeduretako bat proposatuz.

Laugarren atala: bozketak.

31. artikulua. Baldintzak

1. Baliozko erabakiak hartzeko, Unibertsitateko Klaustroa arautegiak ezartzen duenaren arabera bilduta izan behar da.

2. Osoko Bilkuraren erabakiak gehiengo sinplearen bidez hartuko dira. Aurreko arauak ez du balio izango arautegiak berariaz bestelako gehiengoren bat eskatzen duen erabakietan.

3. Erabakiak hartzeari dagokionez, honako gehiengo motak ezartzen dira:

- a) "Gehiengo sinplea": aldeko botoen kopurua aurkako botoen kopurua baino handiagoa da, abstentzio kopurua edozein izanda ere.

- b) "Bertaraturiko kideen gehiengoa": aldeko botoen kopurua bertaraturiko kideen kopuruaren erdia baino gehiago da.
- c) "Gehiengo absolutua": aldeko botoen kopurua organo kolegiatuko kideen kopuruaren erdia baino gehiago izan behar da.
- d) "Gehiengo kualifikatua": beharrezkoa da aldeko botoen kopuruaren proportzioa, organo kolegiatuko kideen kopuruarekin alderatuz, zehazturiko frakzioa baino handiagoa izatea.

4. Bozketaren batean berdinketa gertatuz gero, errepikatu egin behar da eta berdinketak segitzen badu, bozketa bertan behera utziko da Mahaiburuak egoki jotzen duen denbora tartean, eta horren ondoren, bozketa errepikatuko da. Hirugarren bozketan berriz ere berdinketa gertatzen bada, irizpidea, artikulua, zuzenketa edo proposamena ezesten dela ulertuko da.

32. artikulua. Botoen izaera

Klaustrokide bakoitzak boto bat izango du, berarena eta ordezkazina. Ez da onartuko postaren bidezko botoa, boto aurreratua ez eta eskuordetua ere.

33. artikulua. Botoa emateko ekitaldia

1. Klaustroburuak botazio bat egingo dela iragarri ondoren, klaustrokideek ez dute hitzik izango, baldin botazioa egiteko beste prozedura bat proposatzeko ez bada, Arautegi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Proposamen bat bozkatzen ari denean, ezin izango da inolaz ere bozketa eten eta klaustrokideak ezin izango dira aretora sartu edo bertatik atera, buruak bozketaren emaitza jakinarazten duen arte.
3. Quoruma egiaztatzeko, soilik eskatu ahalko da bozketa bakoitza hasi baino lehen, egin ondoren badela ulertuko baita.
4. Isilpeko bozketen kasuan boto-zenbaketa jendeaurrekoa izango da eta Unibertsitateko Klaustroko idazkariak egingo du. Bozketak behar bezala gara daitezen, Mahaikideak eskuhartzaile gisa arituko dira.
5. Botoen zenbaketa amaitutakoan Mahaiburuak aldarrikatuko du bozketaren emaitza.

34. artikulua. Erabakiak hartzea

Bilerako buruak kontsulta egin eta gero klaustrokide bakar batek ere aurkakoa adierazten ez badu, erabakia baiezkua emanez onartu dela ulertuko da. Erabakia hartzeko garaian adostasunik ez dagoenean, bozketa egingo da, zeina, bilerako Buruak aukeratzen duenaren arabera eta Mahaiarekin bat etorritik, bozketa elektronikoz zein ondorengo prozedura hauetakoren bati jarraikiz egingo baita:

- a) Ohiko bozketa. Bilerako buruak aginduko du norbere boto-txartela altxatzeko, baiezkua botoa ematen dutenak, ezezko botoa ematen dutenak edo abstenitzen direnak, eta boto-zenbaketa egingo du, gero dagokion aktan jasotzeko.
- b) Deia bidezko bozketa izenduna. Klaustroburuak klaustrokideak izendatuko ditu zerrendan dauden hurrenkerari jarraituz eta haiek honako erantzun bat besterik ez dute emango: bai, ez edo abstentzioa.
- c) Isilpeko bozketa, Klaustroko edozein kidek eskatzen eta Mahaiak onesten duenean egin behar dena, eta edozein kasutan pertsonak ukitzen baditu. Kasu honetan, idazkariak egingo du boto-zenbaketa ahoz, boto-txartelak hautestontzitik ateraz, organo kolegiatuko edozein kidek aztertzen ahalko dituelarik.

Bosgarren atala: bileren aktak.

35. artikulua.

1. Idazkariak bileraren akta idatziko du, ondoko hauek jasoz: bertaratuaren izena, joan ez diren baina ez joatea justifikatu dutenena, gonbidatuena, bilerako aztergaien zerrenda, bilera egin den tokiaren eta denboraren inguruabarrak, eztabaidetako punturik garrantzizkoenak, jasota geratzeko eskatu diren hitzak, bozketen emaitzak eta hartutako erabakien edukia.

2. Idazkariak izenpetuko ditu aktak, klaustroburuak ontzat eman ondoren eta klaustrokide bakoitzari bide telematikoz, ez badu aurkakoa adierazten, igorriko zaizkio onetsi ditzan. Klaustrokideek idazkaritzara igorri ahalko dituzte beren alegazioak hogeit hamar eskola-eguneko epean, akta igortzen den egunetik kontatzen hasita. Akatsik aurkituz gero, haiek zuzendu ondoren, akta berriz igorriko da eta hamabost eskola-eguneko epea jarriko da egindako aldaketei alegazioak aurkezteko. Halakorik ez bada, akta onetsiztat emango da. Bestela, Klaustroaren Osoko Bilkurak onetsiko du hurrengo bileran.
3. Behin betiko aktak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira eta idazkariak gordeko ditu. Haien gaineko informazioa nahi duen edozein klautrokidek eskuratu ahalko ditu.
4. Klaustroko kideek hala eskatuta, aktan agertuko dira hartutako erabakiaren kontrako botoa, abstentzioa eta bera justifikatzen duten arrazoiak, nahiz emandako aldeko botoaren azalpena ere. Era berean, edozein kidek dauka bere parte hartze edo proposamenaren transkripzio osoa eskatzeko eskubidea, beti ere orduantxe edo buruak finkatzen duen epearen barruan parte hartzearen testu zehatza ematen badu, aktan horrela adieraziz edo bertan kopia bat erantsiz.
5. Gehiengoak harturiko erabakiarekin bat ez datozen kideek idatziz eman dezakete boto partikularra berrogeita zortzi orduko epean eta onetsitako erabakiari erantsiko zaio.
6. Klaustroko kideek kontrako botoa ematen badute edo ez badute botorik ematen, ez dute erabakietatik ondoriozta litekeen erantzukizunik izango.
7. Idazkari Nagusiak jakinaraziko ditu Klaustroaren erabakiak, indarreko legeetan ezarritakoarekin bat etorriz.
8. Unibertsitateko Klaustroko idazkariak luzatu ahalko du edozein bileratan hartutako erabaki zehatzen ziurtagiria, aktaren geroagoko onespeneren kalterik gabe. Hartutako erabakien ziurtagiriak akta onetsi baino lehen luzatzen direnetan, bertan hala emango da aditzera espreski.

BOSGARREN TITULUA

UNIBERTSITATEKO KLAUSTROAREN ARDURA DIREN HAUTESKUNDEAK

36. artikulua. Unibertsitate Komunitateko Arartekoa

1. Unibertsitateko Klaustroak hauteskundeetarako deia egingo du aurrekoaren agintaldia bukatu baino hilabete lehenago. Unibertsitate komunitateko edozein kidek hautagaitza aurkeztu ahal izateko epe nahiko zabala ezarriko du.
2. Hautagaiak, nahi baldin badute, Klaustroko Mahaiari eskatu ahalko diote beren *curriculum* eta jarduera lerroak ahoz aurkeztea Klaustroko Osoko Bilkuraren aurrean.
3. Bertaratutako kideen artetik 3/5 gehiengoaren aldeko botoa erdiesten duen hautagaia hautatuko da. Hori erdiesten ez bada, bigarren bozketa egingo da, eta hautagai bi baino gehiago aurkezten badira, bi bozkatuen artean egingo da. Bigarren bozketan ez bada bertaratutako kideen 3/5 gehiengo erdiesten, errektoreak behin-behinean eta urte beterako, Unibertsitate Komunitateko Ararteko eginkizunak emango dizkio unibertsitate komunitateko kide bati.
4. Unibertsitate Komunitateko Arartekoaren kargugabetzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuetoako 116.3 artikuluan arautua dago.

37. artikulua. Klaustroko ordezkariak Gobernu Kontseiluan

1. Klaustroko ordezkarien hautaketa Gobernu Kontseilurako, hauta daitezkeen arloetako klaustrokideek egingo dute beren artetik hautatuz.
2. Hautagaiak aurkeztuko dira Klaustroburuari jakinarazita, eta hark *in voce* aldarrikatuko ditu. Jarraian, bozketa eta zenbaketa egingo dira, arloka. Idazkari nagusiak boto zenbaketa egingo du.
3. Botoa isilpekoa, askea, zuzena, norberarena eta ordezkazina izango da. Hautatzeko sistema gehiengo sinplearen bidezkoa izango da, Estatutuetoako 49. 1 eta 2an artikuluan ezarritako arauari jarraituz. Beren arloetan boto gehien jasotzen duten hautagaiak izango dira hautatuak. Arlo batean berdinketa gertatuz gero, boto gehien erdietsi dutenen artean beste bozketa bat egingo da. Berdinketak jarraitzen badu, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hauteskunde Arautegiko 23.2 artikulua arauen arabera ebaztuko da hori ezar daitezkeen kasuetan. Hauteskunde Arautegiko 23.3

b) artikuluan aipatzen den arloko azpiarloen arteko eta ikasleen arteko berdinketak jarraitzen badu, zozketa baten bidez ebatziko da.

4. Hautagairik ez dagoenean edo aurkezturiko hautagai kopurua bete beharreko postu kopuruaren berdina edo txikiagoa bada, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hauteskunde Arautegiko 13. artikuluan aurreikusitako arauak ezarriko dira.

5. Mahaiburuak hautagai hautetsien aldarrikapena egingo du.

38. artikulua.

Edukirik gabe.

SEIGARREN TITULUA ESTATUTUAK ERABERRITZEA

39. artikulua.

1. Estatutuak eraberritzeko ekimena errektoreari, Gobernu Kontseiluari, edo klaustrakideen % 25i dagokie.

2. Eraberritzeko proposamena era formalean aurkeztuko da Klaustrako Mahaiaren aurrean. Proposamena arrazoitu egin beharko da eta, hala denean, izenpetzen duten klaustrakideen sinadurekin batera, proposatzen den hautazko testua ere aurkeztu beharko da. Eraberrikuntza osoa eskatzen bada, ordea, hori Klaustrak idatziko du.

3. Klaustroaren Mahaiari egokituko zaio Estatutuak eraberritzeko proposamenak izapidetzeko hartzea, aurreko ataletan xedatuari jarraikiz, eta, halaber, eraberrikuntza partzialtzat edo osotzat ematea, aurreko atalean xedatuari jarraikiz, edo, bestela, eraberrikuntza aukerakotzat edo beharrezkotzat ematea, artikuluko honen 6. atalean xedatutakoari jarraikiz.

4. Klaustrako Mahaiak Estatutuak eraberritzeko proposamena jakinaraziko die klaustrakideei, gutxienez ere, hilabete lehenago proposamena eztabaidatu eta bozketa egiteko bilera egin aurretik.

5. Eraberritzeko proposamenari dagokion bilera egiteko Klaustrorako deialdia aurreko atalak xedatua bete, eta hurrengo hilabetean egin beharko da.

6. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Klaustroaren eginkizuna da Estatutuak eraberritzeko proiektua onestea, eta horretarako klaustrakideen hiru bostenen aldeko botoa beharko da. Estatutuak indarrean sartu eta gero promulgatzen diren arautegizko zein legezko xedapenetara haiek egokitu nahi badira, ordea, aski izango da bertaratutako klaustrakideen gehiengoaren aldeko botoa.

7. Eraberritzeko proposamenak Estatutu hauetan eskatzen den gehiengo lortzen ez badu, ezin izango da proposamena errepikatu harik eta urte bat igaro arte.

8. Ezin izango da Estatutuak eraberritzeko proposamenik egin Klaustroaren agintaldia amaitu aurretiko hiru hilabeteen barruan.

ZAZPIGARREN TITULUA UNIBERTSITATEKO KLAUSTROKO ERABAKIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

40. artikulua.

Klaustrako Osoko Bilkurak hartzen dituen erabakiek administrazio bidea agortzen dute, eta administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan aurkatzen ahal dira, zuzenean, azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Eraentza Juridikoari eta Guztientzako Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legearekin eta lege aplikagarriekin bat etorritik.

ZORTZIGARREN TITULUA
UNIBERTSITATEKO KLAUSTROAREN BARNE ERAENTZAKO ARAUTEGIAREN
ERABERRITZEA

41. artikulua.

1. Unibertsitateko Klaustroaren Barne Eraentzako Arautegia aldatu edo eraberritu daiteke, errektorearen ekimenez, Gobernu Kontseiluaren ekimenez, edo Klaustroko kideen ehuneko hogeita bostak proposamena eginez.
2. Arautegiaren aldaketa edo eraberrikuntza onetsi ahal izateko, beharrezkoa da bertaratu diren Klaustroko kideen gehiengoak onestea.

Xedapen Gehigarria

Edukirik gabe.

Xedapen Indargabetzailea

Indargabetuta daude arautegi honetan xedatutakoari aurka egiten dioten lerrun bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, 2002ko uztailaren 2ko Unibertsitateko Klaustroko bileran onetsitako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitateko Klaustroko Barne Eraentzako Arautegia eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Klaustroa Eratu eta Hautatzeari buruzko Arautegia, 2002ko martxoaren 27ko Gobernu Batzordearen Erabakiaren bidez onetsia (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 46. zk. 2002-4-15).

Azken Xedapena

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitateko Klaustroaren Barne Eraentzaren Arautegiak Unibertsitateko Klaustroaren Osoko Bilkurak onesten duen unean hartuko du indarra.